

IRAKASGAIA: [Literatura dramatikoa](#)

IKASMAILA: [BATXILERGOKO 2. maila](#)

Botereari antzerkia gustatzen zaio	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Literaturak ezin du mundua aldatu; bai, ordea, pertsonak, eta horiek, beren ekintzekin, mundu hobea, solidarioagoa, libreagoa eta bidezkoagoa egiten laguntzen ahal dute. Ikaskuntza egoera honetan, historian zehar antzerkian izandako boterearen mekanismoak erakutsi dituzten ikuspegieta sakontzea proposatzen da, ikasle kritikoagoak eta gogoetatsuagoak hezten laguntzeko.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK2, HKK4, KPSII3.2, HK1, EK3, KKAK1, KKAK2, KKAK3.1, KKAK3.2, KKAK4.1, KKAK4.2 EK1
Ikasleek, taldeka, eszena bat edo batzuk idatzi behar dituzte proposamen eszeniko baten barruan, modu kolektiboan, boterearen gaia modu zentralean jorratzeko.	GAITASUN ESPEZIFIKOAK: 1,3,4 eta 5
Horretarako, lehen zatian, gai unibertsal hau jorratzeko orduan adierazgarrienak eta berritzaileenak izan diren pertsonaia, obra, baliabideak... aztertuko dira. Horregatik, antzezlan ezberdinen pasarte esanguratsuak irakurriko dira, eta haien arteko loturak eta konparazioak ezarri. Baina, horrez gain, ikuspegi holistikoagoa izateko, beste testu batzuk ere aztertuko dira: bideoak, filmak, saiakerak, albisteak, elkarrizketak... Hausnarketa horretan emakumeen ikuspuntua txertatuko da.	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.2, 3.1,3.2,3.3 4.1 5.2
Ikerketa horren ondorio kolektiboak infografietan, bideoetan, podcastetan edo bestelakoetan islatuko dira, eta publiko eginen dira. Ondotik, talde bakoitzak boterearen gaiari buruzko proposamen eszeniko/performatibo baten testua idatziko du, aurretik aztertutako alderdiak erreferentziazat hartuta.	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.2. 2.2. 2.3. 3.

IRAKASGAIA: [Literatura dramatikoa eta Arte Eszenikoak](#)

IKASMAILA: [BATXILERGOKO 2. maila](#)

EMAKUMEAK eta ANTZERKIA	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Mendebaldeko antzerki testuinguruan, emakumearen rola eta kontsiderazioa askotarikoak izan dira, garai eta lekuen arabera, eta, batzuetan, berariaz debekatu da emakumeek parte hartzea. Baina argi dago emakume askok, arauak iseka eginez ere, oso zeregin garrantzitsuak egin zituztela: aktoreak, idazleak edo eszena zuzendariak izan dira. Baina, antzerkiaren historian izan duten presentzia gutxi ikusarazi da. Ikusezintasun horretan ez laguntzeko, ikaskuntza egoera honetan, antzerki klasikotik hasi eta gaur egunera arte emakumeek bete dituzten zereginak ikertzea izanen litzateke helburua, azkenean horiek ikusaraziko dituen teatralizazio bat egiteko. Planteamendu horrek diziplinarteko ikuspegia izanen luke literatura dramatikoaren irakasgaiaren eta arte eszenikoen irakasgaiaren artean. Literatura dramatikoaren irakasgaiaren, ikerketa bat eginen litzateke eta ondorioak jakinaraziko litzaizkieke arte eszenikoen irakasgaiko ikasleei, antzerki testuak idaztea barne. Hura arduratuko da proposamen eszeniko/performatibo bat planteatzeaz, emakumeak historian zehar antzerki testuinguruan izan duen etengabeko parte hartzea islatuko lukeen lankidetzaren lanaren bidez.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK2, HKK4, STEM1, STEM2, KPSII3.2, HK1, KKAK1, KKAK2, ELK3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, HK4, HKK1, KPSII1.2, KKAK3.1, KKAK3.2, KPSII1.1, KPSII4, EK1, EK2, EK3, KKAK4.1, KKAK4.2 GAITASUN ESPEZIFIKOAK: Literatura dramatikoa: 3,4 y 5 Arte Eszenikoak: 4,5,6,7,8 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: Literatura dramatikoa: 3.1,3.2,3.3,4.1,5.1,5.2 Arte Eszenikoak: 4.1,5.1,5.2,6.1,7.1,8.1 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: Literatura dramatikoa:A3. Arte Eszenikoak: B..